

PROPACOREN BATZARRA

Batzarraren osteko afaria



Batzarra

Pasa den ostiralean, Otsailaren 22an Propaco-ko ohiko batzarra bildu zen, batzarra kooperatiba honen bazkide nekazariak osatzen dute, aldi berean UDAPA S.COOP-en kide direnak.

Propaco ekoizleak osatutako kooperatiba da, non 14 kidek parte hartzen duten. Kooperatiba honen eginbeharra Udapa produktuz hornitzea da.

Batzarrean Propaco-ko bazkide guztiek parte hartu zuten, eta urtero bezala azken urtearen galdu-irabaziak erakutsi ziren, baita Propaco kooperatibaren egoeraren balantzea ere.

Gainera, bazkide berriak sartzeko arauak, baldintzak eta kuotak azaldu ziren. Bestalde, kanpaina berria nola prestatzen ari den azaldu zen, haziaren hornidura, banaketak nola egingo diren, salneurriak, etab.

Azkenik, Koldo López de Roblesek, Udaparen kalitatearen arduradunak, Karbono Azterna kalkulatzeko gaur egun burutzen ari dugun proiektua azaldu zuen. Halaber, kanpainaren hasieran kalkulatzeko fitxak banatuko zaiela aurreratu zien, eta betetzeko laguntza eskatu zien, datu hauekin Azterna kalkulatu ahalko baitugu.

RUTA DE EUROPA jatetxean afaria

Ondoren, afaria ospatu zen RUTA DE EUROPA jatetxean. Bertan batzarkideek eta Udapako hainbat kidek (Roberto Ruiz de Infante, Alfonso Saenz de Cámara, Koldo López de Robles, Ignacio Juanche, Ion Legorburu eta Rafael López de Arbina), 25 pertsona guztira, janari goxoarekin gozatu zuten eta harremanak sendotu zituzten.